

AZKEN XOKOA / LE RECOIN

EKITALDIAK

Irailaren 12 an :
« Maltzagako mahaia » Uztaritzen
10 :30, salle Lapurdi,
12 :00 rassemblement devant la mairie
(monument du Biltzar)
15:30 Senperen «Belagileen Trajeria»
zuberotar pastorala
Gazte Abertzaleak (G.A.). XX.
Urteburuko festa Gasteizen

Irailaren 14 an :
« Euskal eskubideaz » erakaspen
abiatzea Maite Lafourcadekin
Baionako fakultatean

Irailaren 20 an :
ALKARTASUN EGUNA Irunan
12:00 ekitaldi politikoa
14:00 Bazkari herrikoia Labrit pilota lekuan

Urriaren 10 an :
**EA Labenzu /Iparralderen biltzar
nagusia** Baionan (9:00 – 12:00)

Urriaren 24 an :
DEIADAR ! Baionan "Denak manifatrat!"

Rejoignez EA

"un parti démocratique et
pacifique pour un Pays Basque
Européen réuni et debout !"

Izena / Prénom :

Deitura / Nom :

Helbidea / Adresse :

Tél. :

Email :

Contact régional
pour Labourd - B. Navarre, Soule

ZUBIAK
34, rue Pannecau - 64100 Baiona

e-mail : aldizkaria@zubiak.org
© 05 59 25 50 98 / 06 76 50 58 54
Fax : 05 59 25 50 98

www.euskoalkartasuna.org
www.zubiak.org

**Parti Socialdémocrate
Basque et fédéraliste
européen**



ZUBIAK, n° 33

ISSN 1771-0464

Imprimeur : Imprimerie Artisanale -
14, Pannecau - 64100 Bayonne / Baiona
Directeur de publication : P.M. Etchepare
Editeur : Zubiak, 34 Pannecau - 64100 Baiona
Date : 2009 Septembre / Iraila

GOGOETA REFLEXION

ZER da euskal idazke izatea ?

Txomin Peillen



Hamasei urteekin nintzan euskaraz idazten hasi 1948 an; geroztik ez naiz gelditu, alta , arrazoi franko izango nituen ez jarraitzeko. Lehenik, hogoei urteez idatzi nituen liburuak Francoren denboran nekez agertu ziren, artikulua eta ipuin aintz bai. Bigarrenik, hasieran Francoren zentsura jasan banuen, gero argitaletxeena. Hirugarrenik Orain, euskal idazle eza gutua izateko inpresarioak eta "amiguismoa" behar dira.

Laurgarrenik, uste nuen euskal idazlea nintzela hiru eleberrri sari ta eleberrri labur sari bat irabazi ondoren, baita aurten 2009 nire berrogeita batgarren euskal liburua agertu baita. Liburu horien erdiak, etnologia, filologia eta linguistika jakintza ikerketa lanak dira. Galde nezake ea zenbat unibertsitateok nire gisa beren ikerketa gehienak euskaraz idatzi dituzten.

Bai, uste nuen euskal idazlea nintzela, baina Karmelo Etxenagusi eliza gizonak, iparraldeko idazleentzako antologia argitaratu zuenean, jadanik hamazazpi liburu argitaratu nituelarik, ez da lerro bat ere ene lanaz. Halaber Lurrek euskal literaturaz argitaratu bi tomatan ez dago nire alde edo kontra lerro bat ere ! Halaber, 23 haur eta gazte ipuin idatzi ondoren, haur literaturari buruzko ikerketan lerro bat ere ez didate ematen. Laurogeita hemezortzi ipuin eta narrazio idatzi ditut eta lgerabide batentzat ez naiz ipuin idazle, areta Koldo Mitxelenarentzat halakoa nintzen eta Joan Mari Torrealdaiantzat honelakoa naiz. Egia da gaurko idazle eta euskaltzale gazteentzat prehistorikoa naizela eta euskal literatura beren obrekin eta beren garaiko laguntxoekin hasten dela.

Ez dakidalarik zergatik eta ez naizelarik euskal idazle bakarria kasu honetan, ezagutzen ditudan batzuegandik boikota bizi dut. Zaharra naizelako ? EA koa naizelako ? Euskaltzaina nai-

zelako ? " Frantsesa" naizelako ? Jainkogabea naizelako ? Unibertsitateko naizelako ? Nire literaturan euskal arazoak eta Euskal Herria ia aipatzen ez ditudalako ? Frantsesez hiru liburu eta gaztelaniaz biga idatzi ditudalako ? Hots naizena naizelako eta aldatzeko gogorik ez dutalako ?

Zergatik jarraitu dudan ? Lehenik, euskaraz idaztea gustatzen zaidalako eta bigarrenik, irakurle zintzoak ditudalako, hirugarrenik bizkortzaileak ditudalako. Lehen urteetan jarraiki dut, Andima Ibinagabeitiak beroturik, gero Koldo Mitxelenak aholkaturik eta 1970. urteetik goiti leialki Jokin Apalategik, Luzien Etxezaharretak eta Sabin Oregik sustaturik. Orain, Andres Urrutia Euskaltzainburua re bultzaile.

Pozik ikusten dut, halere, nola asko estimatzen ditudan idazleak aipatzenago diren, hala nola Eider Rodriguez, Laura Mintegi, Junes Casenave, Jerardo Elortza, Edorta Jimenez, Aingeru Epaltza, Igor Estankona, Mikel Hernandez, Txema Iturralde, Koldo Izagirre, Joan Maria Irigoyen eta beste. Aitortu behar da euskaraz irakurle gehiegirik ez daukagula, baina entzuleak badira : literatura antzerkibidez eta olerkariantzat kantu bidez hedatu eta hedatzen dira.

Euskara dela eta, uste dut ez dugula utzi behar haren alde borrokatzea, zeren gure nortasunaren ezaugarri nagusia baita. Zer litzateke Euskal Herri independentea edo berjabea erdaldun balitz ? Hizkuntzarekin batean, kultura funts bat gerokoei helarazten da eta hain okerra den euroamerikar modelari, ereduari, hesi baten egiteko izan behar luke. Horretarako gure historia eta gure etnografiak ikertu behar genituzke eta belaunaldi berriei gehiago eskaini, hots, mito berriak bainan gureak, eskaini behar ditugu, horretarako da ere literatura.



ZUBIAK

Dirua lagun ona : Jabe txarra ! (erran zaharra)

« EA, redynamisé, après son récent congrès national »



Sommaire / Nun zer

- 1. or. **Maria Luisa Mangado mintzo**
- 2. or. **Avec EVA Aranguren (interview)**
- 3. or. **Pello URIZAR**
Secrétaire national de EA
- 4. or. « **BIZI** » pour le Chronobus
Baiona / Angelu
- 5. or. **Congrès R&P.S. à Tréguier / Landreger (Breizh)**
- 8. or. **Ecrire en euskara (Txomin Peillen)**

GAIA / THEME LA NAVARRE



Nafarroako parlamentari zarene, nola ikusten duzu Nafarroako egoera ?

Egun, oso ilun ! Nafarroa beti izan da "cuestion de estado" eta argi ikusi zen 2.007. hauteskunde emaitzekin. PSN ek hauteskunde kanpainan "aldaketaren aldeko" leloa erabili ondoan. Nafarroako 3. indar politikoa bihurtu zen 12 parlamentariekin. Aldaketa posible zen beraz NABAI, PSN eta EB ren artean 26 parlamentari osatzen bait genituen. Posible zena "txarlotada" bihurtu zen "agostazo" abuztu luzea... pasatu ondoren, PSN ek UPN-CDN eskuindarrerri Nafarroako gobernua eman zienean.

Maria Luisa Mangado Nafartar Parlamentariarekin

(Pampelune / Iruña, 1947). Militante antifranquiste au sein de EGI (Jeunes nationalistes basques). Poursuivie par la police, se réfugie, en 1970, chez des amis de St-Sébastien (Donostia), puis parvient à fuir à Bayonne. Participe en 1972 à la grande grève de la faim à la cathédrale de Bayonne contre les expulsions de réfugiés basques.

Après disparition de Franco et, à la faveur de l'Amnistie, retourne à Pampelune en 1977. Elle se met à fond à l'euskara puis exerce comme professeur de basque à l'école publique basque (modèle D).

A milité au départ au PNV puis, après les expulsions collectives de ce parti (1985-86), rejoint avec les « expulsés » de Navarre les fondateurs d'Eusko Alkartasuna. En 2007 élue (4^e sur 12) Parlementaire de Navarre comme candidate de EA dans la coalition abertzale NABAI / Nafarroa Bai « Oui à la Navarre ! »

« Sombre avenir de la situation politique actuelle en Navarre »

Saldukeriaren ondoren, aurrekontu eta politika hitzarmena sinatu zuten eta horiekin batera PSN koak pozik atera argazkietan eta pozik ere bere poltroian beroten !

Nafarroko espero genuen aldaketa aurrerakoia (progresista) porrot eginda, ikusi dugu boterean jarri 3 alderdi hoi alienazioa eskuin muturreko politika ekonomiko eta sozialaren aldera, ETA ren kontrako frentismo espainolera itzuliz egiazko problemak estaltzeko: hauk baitira, besteak beste, ekonomia eta lan egoera mila eta milaka Nafartarrentzat.

Nafarroa Bai hor da beharrik erreferente eta itzaropen emaile Nafartar politika zinez aldatzeko.

Eta Eusko Alkartasunaren bila-kaera lurralde zabal hortan ?

Dakizuen bezala, Nafarroa Bai 4 alderdi independentez osatua da. EA ren eskari politikoak ordezkatzen dituen koalizioa da, hau da, euskal estatu independente baten alde, progresista eta solidarioa izan dena. Hor justizia sozialak manatu beharko baitu baitezpada! Estatu hori izan behar baita ere European kokatua, horgo herriek, bakotzak bere ahotsa eta ordezkaritza zuzena duela. (Suite à la P.2)

«Les partis composant la coalition abertzale Nafarroa Bai peuvent difficilement parvenir séparément à un changement politique en Navarre »



Gure koalizio hortako alderdiek bakarka jokatu zaila dute gehiengo progresista bat ardiestea Nafarroako politika aldatzeko. Hortakotz Nafarroa Bai biziki positiboa da. Eusko Alkartasunak parte hartzen du koalizio hortan ideia argi eta jende baliok eta kartsuekin. Alderdi bezala EAn ordezkari politiko ona daukagu herri eta hiri andana eder batean bai eta koalizio barnean ere, noski.

Zer hobetzen ahal da politikoki hortik Euskadi edo E.Herri osoan ?

Euskadi osoaz ari bazare, erran nahi baita Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Lapurdi, Nafarroa, Nafarroa behekoa eta Zuberoaz, beharrezkoa da espainiol fronte nazionalistari buru eginen duen estrategia edo joka-

bide orokor bat. Horrek erran nahi du indar zabal bat antolatu behar dela gure gizarteko indar politiko ezberdinak eta gisa bateko edo besteko sentsibilitateak bilduko dituen, besteak beste, helburu amankomun bonekin, euskal estatu independente bat lortzea.

«Nécessité d'établir une stratégie abertzale commune contre le front nationaliste espagnol »

Horrela geldiaraz genezake estatuak jartzen dizkiguten hanbat zepo legalak. Alderdien legea...

Hortarako ere "ETA deitzen den" horrek desagertu behar du. Nekatuak baino gehiago baigara kalendariora edo agenda honek marka diezaukun.

Adospen ilusio-garrietara heltzeko beharrezkoa izanen da, bestalde, parte hartzaile guzien engaiamendua, hasiz lehenik iragan ekimen batzuen jukaketa autokritiko batekin (bitarteko batzuen bidez ahal dela)

eta proiektu edo estrategia bat eraikiz helburuetarazteko.

Denbora berean -eta lehen helburuetarik da - gure gizartearen ongizatea ardiestea -eta krisi garaietan garenez - lehenetsuna ematea politika sozialeri, gosea eta arrangura latzik ez dezan ukan jendeak, lan galtze edo beste gertakari gatik.

Zer sentimendu duzu, aurten EAK Alkartasun Eguna Irunan antolatzen duela irailaren 20 an ?

Bost urteoro festa hau Nafarroan ospatzen da eta aldi honetan Irunan. Badugu hor parada hauta gure eskubide politiko eta sozialen finki agertzeko Euskadiren bihotzean eta hori garrantzi handikoa da.

«Revenir nos droits politiques et sociaux au cœur d'Euskadi à Pampelune le 20 septembre prochain»

Bestalde, egun egokia izanen da, adiskideen artean, gure alderdiaren festa ospatzeko. Den denak gonbitatuak gara horrarat.



EVA ARANGUREN-i 3 GALDE

Eva Aranguren (Pampelune / Iruna 1976)

Journaliste euskaldun, ancien responsable de presse d' EA en Navarre et Secrétaire Générale à la fédération navarraise. A exercé, entr'autres, à Europa Press, Onda cero, el Mundo del Pais Vasco, Euskaldunon Egunkaria.

Aujourd'hui responsable du département des « Politiques sociales » à l'Exécutif national d'Eusko Alkartasuna.

Nola sentitzen zara hain gazterik EA ren Batzorde Eragile Nazionalan ?

Arduraz eta ilusioz hartu dut Euskaldiko Batzorde Eragileko kide izateko arronka. Oso une berezia jasaten ari gara Eusko Alkartasunan, aldi berean zaila eta inportantea eta horrek zentzu berezia ematen dio ardura honi.

« Renforcer le parti et préparer les échéances électorales de 2011 (Mairies et diputations) »

Alderdi indartu eta 2011 rako lan egitea izan behar da gure helburu nagusia orain, kanpoko egoerari, krisi ekonomikoari eta PSOE eta PP eta UPN ko eskuinaren amankomuneko estrategiari aurre / buru eginez.

Zer garrantzi ematen diozu Batzorde Eragile Nazionalan eramatean duzun sailari ?

Arlo soziala arlo ekonomikoaren beste aurpegia da. Krisi egoera honetan, erakunde aro soziala indartu behar dute egoera-

ren biktima nagusia diren pertsona eta familiei irtenbide (aterabide) bat emateko eta zerbitzu publikoen kalitatea mantendu eta hobetzeko. Preseki orain, askotan krisialdiak justu aurkako (kontrako) norabidea hartzeko aitzaki moduan erabiltzen baitira.

« Crise ! ... c'est le moment de renforcer et d'améliorer les services publics »

Ongizate Estatuak aukera berdintasuna bermatu behar du, baita eskubide eta askatasunetan eta arlo

honetan asko dago egiteko emakume eta gizonen arteko berdintasunean, etorkinei ematen zaien tratamenduan edo pertsona homosexualen eskubideetan. Beraz, oso sail garrantzitsua da eta erabat transbertsala eta beste sail batzuekin lan egitea ezinbestekoa du: ekonomia, fiskalitatea, ingurugiroa...

Zer sentimendu aurtengo Alkartasun Eguna Nafarroan ospatzen dela, Irunan ?

Nafar abertzaleontzat eta alkarkide guztiontzat, Iruna Euskal herriko hiribu-

rua da. Beraz, oso berezia da alderdiak bere eguna ospatzeko aurten Iruna hautatu izana. Momentu honetan gainera, abertzaleok estatu arrazoian oinarritutako estrategia gogorra jasaten ari gara.

« En ce moment, les abertzales subissons une dure stratégie émanant de la raïson d'état espagnol »

Nafarroako entsaio-laboretegi urtean Espainolek aplikatu izan duten UPN-PP eta PSOE ren arteko akordio baztertzaila eta sektarioa, eta kriminalisazio sistematikoa, gure herriko beste erakundeetan, hiri eta herrietan, jasaten ari baikara. Beraz, Eusko Alkartasuna bezalako alderdi abertzale sutsuarentzat inoiz / nehoiz baino garrantzitsuago da indartsu agertu, nazio mailako ikuspegi argia mantendu eta goraiatu eta estrategia hau salatzea, gure herriaren eskubideak eta gure alderdiak bete beharreko papera (lana) azpimarratuz. Eta hortarako Iruna marko ezin hobea da.

malnutrition. La crise systémique étroitement liée au système libéral aggrave lourdement ce drame. Pour R& PS le principe de souveraineté alimentaire est une question centrale pour l'avenir. Il n'est pas acceptable que les excédents agricoles des pays riches contribuent à déstabiliser les économies fragiles du sud.

Réforme des collectivités territoriales : régression à marche forcée...

L'avant projet de loi sur les collectivités territoriales, publié le 20 juillet dernier et les intentions plus ou moins affichées de Nicolas Sarkozy et de l'UMP mettent en péril la régionalisation encore timide amorcée en France il y a un quart de siècle. En France, les Régions ne maîtrisent que 3% du budget public global, hors sécurité sociale, quand en Allemagne les Landers en maîtrisent près de 50% et les Communautés autonomes d'Espagne 35%....

Mesures préoccupantes : la suppression de la clause de compétence générale pour les Régions signifie que la Région serait niée en tant que territoire où s'exprime l'intérêt général....Le remplacement des conseillers régionaux par des conseillers territoriaux, sorte de « super cantonniers », aurait inévitablement pour conséquences d'effacer la notion même d'intérêt régional en renvoyant l'élection de chacun à des considérations localistes !

Ces deux mesures additionnées révèlent le projet Sarkosyste : mettre les Régions au pas dans le cadre d'un projet de société libérale....

Elections régionales : + de Région, maintenant !

Les partis membres de R& PS se présenteront aux régionales de mars 2010 en portant un projet clair et ambitieux de régionalisation reposant sur le principe du fédéralisme différencié qui considère que l'égalité consiste à traiter différemment ce qui est différent.

...Les Régions ont besoin d'un pouvoir normatif (pouvoir législatif et règlement) pour que l'action publique soit adaptée aux besoins spécifiques de chaque territoire...

...Les Régions ont aussi besoin d'un pouvoir budgétaire conséquent. Avec 3% seulement des dépenses publiques, il est clair que les Régions ne sont aujourd'hui pas en mesure de répondre aux attentes de leurs populations.

...Le découpage des Régions, en tant qu'espaces démocratiques, doit également correspondre aux aspirations de leurs populations. La création d'une Région Savoie, l'accession du Pays Basque nord et de la Catalogne nord au statut de Collectivités territoriales à statut particulier, la fusion des collectivités alsaciennes, la réunification administrative de la Bretagne et la création d'une Institution culturelle commune à l'ensemble des territoires de langue occitane sont des exigences démocratiques.

...Les forces politiques et la haute technocratie actuellement au pouvoir à Paris n'y sont pas prêtes. C'est donc un bras de fer avec l'appareil d'Etat qu'il faut engager. Nous y sommes prêts.

R& PS souhaite porter ce projet avec d'autres forces politiques, à commencer par les Verts et les autres composantes d'Europe Ecologie.... »

**Régions et Peuples solidaires (R& PS)
34 Avenguda St Saëns – 34500 - Besiers – Occitanie :**



De G. à D. Jon ARRIZABALAGA, Mme et M. TROUILLET (nouveau Président de l'Union du Peuple Alsacien), Martin ETCHEPARE (coordinateur de EA LABENZU), Miren URREIZTIETA (secrétaire générale) lors de la remise d'un drapeau basque à destination de l'UPA.

ZUBIAK sur le blog : www.ea-labenzu.fr/



Les Verts du Pays Basque au Conseil Régional

Euskal Herriko Berdeak mintzatu dira Conseil Régional d'Aquitaine hortan. LGV horren ez deuseria azpimarratuz, Baionako portuaren hedapena onartzen dute « Fertildour » ek utzi lurreri kutsadura ttipitzekotan.

Les Verts du Pays Basque se sont exprimés fin juin au Conseil régional d'Aquitaine. Ils s'y sont fait l'écho des réserves émises par la population de ce pays à travers référendum réunions, par l'intermédiaire de leurs élus, en ce qui concerne la LGV, soulignant les inexactitudes et incohérences du projet.

Quant au port de Bayonne, oui à son développement en respectant l'environnement ; ils soulignent la radiocativité du terrain qui hébergea Fertildour. La dépollution devrait être à la charge du pollueur.

LA NOUVELLE LIGNE ENCORE

29 herrietako auzapez LGV horren kontra agertu dira. Baionan eginen ote da geltoki berri bat ?

En juin encore, Victor Pachon soulignait des absurdités qu'on pouvait lire dans une publicité payée par la CCI d'Aquitaine, dans notre grand quotidien. Il adressait la palme à M. Berkman, question mauvaise foi. La voie mise à écartement européen du réseau espagnol n'est pas au rendez vous ; le projet au sud de la Bidasoa concerne les voyageurs, au nord les marchandises ; quant à la ligne existante, elle est loin d'être saturée. Et pourtant on a vu des Borotra, Rousset et consorts défendre ce projet de nouvelle ligne.

Les 3 communautés de communes, Sud Pays Basque, Nive Adour et Errobi regroupant 29 communes ont réaffirmé leur désir de réhabilitation de la ligne existante au delà de Bayonne. Ici, on parle de gare et de ses abords qui évolueraient vers un pôle d'échange multimodal : trains, cars, taxis, camions. Dans le contexte de voie nouvelle ? Ce choix devra être confirmé le 17 septembre à Bordeaux par le comité de pilotage.



CHRONOBUS

Baionatik Angelura, bide berezi bat antolatua izan da, autobus ta xirringularentzat.

Une nouvelle voie réservée aux bus et aux cyclistes a été testée en juillet entre la gare de

Bayonne et Anglet St Jean. Si les usagers des bus et les cyclistes sont contents, les commerçants de la RD 810 ne sourient pas. Des améliorations seront apportées pour diminuer les bouchons. L'association « Bizi » défend ce chronobus et demande son développement. Elle a organisé un parcours en vélo sur son trajet. 150 cyclistes y ont participé.

LOISIRS RESPECTUEUX (DURABLES ?)

Ezpeletan, Angelun, Donibane Lohitzunen, dela ibilketa dela zoin lehenka, izan da mugimendu eta besta ! Baiguran hegaldaka ibili nahi zutenek ukan dute parada ederrik !

Hazparne, Lekorne, Ixturitze, Heleta ta inguru horietan, auto zoin lehenka batek bideak tratatu ditu kutsadura sortu.

- Espelette a connu une fois encore, début Juillet, la course des crêtes inaugurée il y a 30 ans. Plusieurs niveaux : 27, 19,14, 7 km. Plus de 2.000 coureurs cette année !

- Appelé par l'association « Ur Kiroiak », « Odyssea » qui organise depuis sept ans des courses au profit de la lutte contre le cancer, s'est déplacé à St Jean de Luz.

- A Anglet, Izadia est le théâtre de marches silencieuses organisées par l'association Ezkandrai. Son but : entrer dans le rythme de la nature : craquement du bois, souffle du vent, chants d'oiseaux, de grillons. Les artistes accompagnants improvisent chants, poèmes, airs de flûte.

- A Baigura, l'école hegaldaka organise des baptêmes de l'air en parapente. Le tracteur qui tire les wagons emmène les intéressés du centre des activités au sommet de Baigura en 25 mn, en profitant des beaux paysages qu'offre ce site.

Que de plaisirs dans le respect de tout et de tous ! Par contre, fin août, le rallye automobile du Pays Basque est venu polluer l'atmosphère et compliquer la vie des habitants d'Hasparren, Mendionde, Isturitz, Hélette et j'en passe...en barrant tout simplement des routes principales avec la bénédiction du Conseil Général, si l'on en croit certaines affiches, (et peut être même quelques subsides). Nous serions alors des pollués payeurs ! Après tout, les riches n'ont ils pas le droit de s'amuser comme ils veulent et ce n'est pas Fillon qui leur dirait le contraire !

BORDS DE MER

Hendaia Sokoburuko desagertuak bezala ziren ondar munoak bereraikitzen hasiak dira Estraburgoko gazte batzueri

esker. Alsaziarrak Euskaldunen laguntzen, zer da pollitagarik ?

Itsas bazterretan, Anglun bezala, ondartzan errespetuari ohartarazteko ekintzak egin dira ta aholkuak eman..

- Si Pierre Loti avait remarqué en son temps des oeillets et des lys de sable qui poussaient sur les dunes de Sokoburu à



Hendaye, celles là ont subi une érosion importante due à la mer et au vent mais aussi à des actions humaines : extraction de sable, passage de véhicules etc..Un groupe de scouts de Strasbourg, dirigé par les gardes du littoral du Domaine d'Abadia ont encerclé les dunes ou ce qu'il en reste avec des barrières qui, en limitant la vitesse du vent, les aide à se régénérer.

- A Anglet, les animateurs du centre de loisirs de Baroja font comprendre aux enfants, à travers des jeux, les conséquences de leurs gestes sur l'environnement : nettoyage de plage, activités de sculptures avec des objets récupérés, initiation au tri, observation de déchets rejetés par la mer.

- Les surfers aussi sensibilisent et depuis longtemps au respect de l'environnement : leurs associations ont listé neuf gestes de protection des océans, lacs et rivières. Ils participent aussi au nettoyage des plages en affirmant que les nettoyer c'est bien mais ne pas les souiller serait mieux.

DANS NOS CAMPAGNES

Primadera honetan saiak aratxe, behi ta ardieri oldartu zaizkigu, hartzak ere kalteak ekarri

- BLE elkarteak, Heletan ta Maulen mintzaldiak antolatuta dituzten beldarretaz ta laborantza ganbarak lur lanen eraginaz bazterretan ta bizidun ezberdinetan.

Mi juillet, l'association BLE a organisé à Hélette et Mauléon des conférences sur la chenille des prairies : ses cycles, périodes de risques, produits bio de lutte.

- Laborantza Ganbara a organisé, elle, une conférence dans ses locaux, intitulée : « Influence des activités agricoles sur les paysages, la biodiversité et notamment l'avifaune »

Kattalin Gorri

Landreger / Tréguier (Breizh / Bretagne) 26 Août 2009



(Extraits)

«

Les participants au Congrès ont salué l'élection au Parlement européen d'un des leurs, François Alfonsi, maire d'Osani, représentant le Parti de la nation corse (PNC). L'élection de François Alfonsi s'est faite dans le cadre d'un accord entre Régions et Peuples Solidaires. Les Verts et des personnalités issues du monde associatif. Au Parlement européen, F. Alfonsi siège dans le groupe des Verts- Alliance Européenne (ALE), groupe de 55 élus où il est un des 7 EuroRégionalistes qui forment ce dernier.

Forte représentation des Verts et Europe Ecologie

R& P.S. a eu le plaisir d'accueillir à Landreger / Tréguier deux autres élus d'Europe Ecologie, Nicole Kill-Nielsen et Yannick Jadot, ainsi que plusieurs élus régionaux et responsables des Verts bretons. Cette participation a confirmé la volonté de consolider la dynamique d'Europe Ecologie.

Ouverture de R& P.S. au Congrès Mondial Amazigh (Berbères)

Le congrès a voté à l'unanimité l'octroi du statut d'observateur au Congrès Mondial Amazigh, représenté par son président Belkacem Lounès...

La crise climatique et environnementale appelle une mobilisation des Régions

...Il s'agit d'un problème global qui appelle des réponses à l'échelle planétaire, c'est pourquoi nous appelons à ce que la Conférence de Copenhague (7-18 décembre 2009) débouche sur des objectifs ambitieux de réduction des émissions de gaz à effet de serre assortis des moyens nécessaires pour les atteindre, en premier lieu dans les pays



L'accueil de Michel Sohier, Maire de Tréguier avec à son côté droit Nelly MAES (Présidente de l'ALE)

industrialisés et sur des financements conséquents pour aider les pays pauvres à s'adapter aux conséquences du changement climatique et à acquérir les technologies vertes innovantes.

Pour autant, la fédération R& PS considère que l'efficacité de l'action implique une mobilisation des

Régions en tant que collectivités dotées à la fois d'une fonction stratégique et d'une fonction de gestion qui leur donnent une connaissance fine des territoires, ce qui fait leur spécialité. L'implication des Régions intervient dans un contexte où la régionalisation tend à se généraliser sur tous les continents....

... Dans le cadre de la préparation de la Conférence de Copenhague et dans la perspective des élections régionales, F. Alfonsi organisera à Brest une journée de découverte de ClimSat, le 20 novembre prochain à destination des candidats aux responsabilités régionales.

R&PS souligne également la qualité du travail prospectif réalisé par l'UDB, sous la coordination de Gwenael Henry, avec la publication du Nouveau Plan Alter Breton (Possibilité de décharger sur le site de l'UDB:www.udb-bzh.net) qui démontre qu'il est possible d'accéder à une autonomie énergétique au plan régional sans pétrole ni nucléaire.

L' Economie au service de l'humain!


La crise systémique qui affecte nos sociétés réclame un retour aux territoires. La globalisation financière déshumanise les sociétés en imposant l'uniformité et les concurrences sauvages quand

l'économie territorialisée permet au contraire d'entretenir la diversité des cultures et des produits tout en prévenant les risques de délocalisation d'emplois. A cet égard, la politique conduite en Euskadi pendant 25 ans par des abertzale démocrates (EAJ et EA) fournit un exemple remarquable de développement endogène.

...R&PS considère aussi que la question alimentaire est une urgence. Pus d'un milliard d'êtres humains souffre de faim ou de

(Suite à la P.7)

Entrevue avec Jordi Vera du CDC (Convergencia de Catalunya à Perpignan)



M. Jordi, vous êtes à nouveau élu (de l'opposition) depuis les récentes élections municipales de Perpignan. Qu'est ce qui a manqué pour que vous y soyez avec une majorité ?

Le fait qu'une liste dissidente ex PS, Verts, Modem ne se soit pas jointe à nous, c'est ce qui nous a empêché de gagner pleinement. C'était vraiment dommage après la décision du Conseil d'Etat d'annuler l'élection de mars 2008 pour fraude massive.

Votre liste était elle suffisamment soudée ?

C'est vrai que notre groupe d'opposition était vraiment hétéroclite. Mais au CDC nous avons décidé de garder toute notre liberté et nous voterons toujours en fonction de nos intérêts et de notre programme. Et en particulier en faveur de tout ce qui représentera une approche positive de l'identité catalane.

Comment pensez vous agir même de l'opposition ?

D'abord par notre travail et ensuite en révélant la réalité géopolitique que toutes les forces politiques sont obligées de prendre en compte, notamment le fait transfrontalier et la proximité avec la Catalogne sud.

Vos objectifs principaux pour les prochaines élections régionales ?

Notre objectif principal est de faire élire au moins un Conseiller régional CDC ; notre présence aux institutions régionales est primordiale pour faire le lien entre le territoire catalan du nord et le gouvernement catalan du sud, notamment en tout ce qui concerne la logistique, les transports et les relations avec l'Europe dans le sens de la reconnaissance de la Catalogne comme territoire pertinent où se construit l'Europe des citoyens.

P.J.



OMORE BILA

ENA ko hoiek !...

ENA (Ecole Nationale de l'Administration) ko buru handi hoietarik batek hartzen du xedea bere bulegotik kanpo zenbait egun baserian iragaiteko aire garbian, ardi, behi eta zaldien artean...

Astiri batez, buruz buru egiten du menditto batean artzain batekin eta huni sanfreta gorrian erraiten : " Ehun euro pariatzen dauzkit-zut zure artaldean zenbat ardi dituzun karkulatzen dutala hemendik beretik !"

Artzainak orduan, kasik segur, jaun handi horrek galduko duela parioa:" Hean ba, zenbat ardi diren ene artaldean ? "

ENA koak ihardesten berehala:" 176 buru dira denetarat hemen, xuxen xuxena".

Artzainak, doi bat harritua:" Bai hala da ! Parioa galdua dut ! Harzazu beraz hortxe artaldetik ardi bat zuretzat !"

Jauna bi lasterretan badoa lorieta haraxko, irabazi ardia hartzeko, bainan artzainak, ez begia sakelan, itzularazten du oihuka:" Ho! ho! Nik orai pariatzen dut zu ENA ko buru handi hoietarik zarela ! Ardiaren orde z zakurra hartu duzu eta !"


Jon de la Lande

Bere azken kongresutik landa Eusko Alkartasuna zinez indarturik ateratzen da Pello Urizar bere Idazkari Nagusi berriarekin eta alderdia abiatzean finkatu printzipioeri beti leial : Bortizkeriarik gabeko demokrazia, autodeterminatzeko eskubidea Euskal Herriarentzat, sozialdemokrazia, sozial arazoak eta euskal politika aintzintzeko, ardura edo erresponsabilitate lana erakundetan. Milimetro bat bera ez hortik kanpo !

EA sort renforcé de son dernier Congrès national de juin dernier à Gasteiz / Vitoria avec l'élection de Pello Urizar comme nouveau Secrétaire Général du parti et un exécutif national renoué à 90% !.

« Les 600 congressistes-délégués- accourus de tout le Pays Basque y ont travaillé avec beaucoup d'esprit critique sur les près de 500 amendements proposés – déclare Pello Urizar dans le magazine national Alkartasuna - ce qui confirme la tenue d'un débat des plus riches concernant la politique générale de notre parti comme de ses statuts renoués et adoptés à plus de 90 %, comme d'ailleurs la motion politique elle même. Nous avons à présent tourné la page et les problèmes internes de déloyauté ne sont plus. Nous tirons tous à présent dans le même sens. L'idéal politique de EA se maintient intact et clair comme à ses débuts. Nous sommes un parti radicalement démocratique, de défense de tous les droits humains et abertzale avec comme objectif d'obtenir une République basque au sein de l'Europe. Nous sommes un parti social démocrate qui œuvre pour la justice sociale, pacifiste et indépendantiste. Nous n'avons au cours de notre trajectoire varié ni d'un seul doigt dans notre idéal que nous avons adapté au mieux à la conjoncture politique en cours et grâce à Eusko Alkartasuna se sont produites des avancées au plan de l'autogouvernement de ce pays. »

N.B. La fédération EA du Labenzu (Labourd, Basse Navarre et Soule) était aussi présente à ce congrès avec 8 délégués conduits par son Président Martin Etchepare et sa Secrétaire générale Miren Urreiztieta



Pello Urizar
Nouveau secrétaire général de EA

R& P.S. federazioaren aurtengo Udako Unibertsitate eta Kongresua aurten Tréguier / Landreger en Breitanian.

Han ginen bai gu ere EA LaBenZU-ko 5 ordezkari Baionatik, Lekornetik, Hendaiaitik, Urruñatik eta Urketatik haratuak abuztuaren edo agorriaren 23 tik 27 rat. Eta xede ainitzekin hainbeste Bretoin, Alsaziar, Okzitan, Kortsikar, Katalan eta Saboiar delegatuen artean (denetarat 200 bat inguru).

UDB (Union démocratique Bretonne) alderdi ezagunak denak ongi antolatuak zuten.. François Alfonsi kortsikarra ere (berriki R& P.S. en kondu «Europe Ecologie» baitan eurodeputatu atera dena) ere hor ginuen trenpu gaitzean UDB ko 3



De G. à D. Peire COSTA, François ALFONSI, Gustave ALLRIROL (Président), Nicole LOGEAIS, Christian GUYONVARC'H

Eskualde kontseilariekin (3 ak zoin suhar-rago : Christian Guyonvarc'h, Naig le Gars, Mona Bras) bai eta beste bi bretoin eurodeputatu ekolojistekin betan : Yannick Jadot eta Nicole kiil Nielsen.

Nelly Maes ALE (Alliance Libre Européenne) ko lehendakari anderea ere hor beti bezain argi eta kementsu !

Succès de la 14^e Université d'été et 15^e congrès de la fédération R& P.S. (Régions et Peuples solidaires) à Tréguier / Landreger en Bretagne.

Débats extrêmement riches sur de nombreux thèmes : notamment sur la sauvegarde de l'environnement et le rôle primordial que peuvent et doivent y tenir les régions. Le tout rehaussé par la présence de trois conseillers régionaux bretons de l'UDB (Christian Guyonvarc'h, Mona Braz, Naig Le Gars) et trois eurodéputés : François Alfonsi, bien sûr, au titre de R& P.S. - ainsi que Yannick Jadot et Nicole Kiil-Nielsen écologistes, tous trois dernièrement élus dans la coalition « Europe Ecologie ».

L'UDB (Union démocratique bretonne) avait parfaitement préparé les choses alternant les moments d'étude et de détente comme cette découverte de la magnifique Côte de granit rose. Oui ! Magnifique Bretagne ! Et dire que le système centraliste français l'ignore et la méprise encore tant !

Le Congrès, outre les divers rapports moraux et financiers à proprement parler, a surtout vu le positionnement de chaque parti membre de la fédération par rapport à son travail spécifique : participation fructueuse à « Europe Ecologie », renforcements, relations avec d'autres partis proches, projections sur les prochaines régionales et la meilleure façon d'y faire avancer nos aspirations pro-

pres dans chacun de nos territoires nationaux. (Voir,ci après, extraits de l'importante Motion Finale du Congrès).

M.P.